

Udalek euskaraz jardutea baliogabetu du Espainiako Auzitegi Gorenak

AGENTZIAK/LA HAINE :: 12/04/2025

Gorenak PPren eskaerari men egin eta EAEko udaletan euskararen erabileraren lehentasuna arautzen zituen hainbat artikulua baliogabetu ditu.

179/2019ko dekretuak EAEko udal legea garatzen du euskararen arloan. Haren zenbait artikulua baliogabetzeko epaia eman zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 2023an, PPk abiatu zuen auzibidea. Egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritza kasazio errekurtsio bat aurkeztu zuen, baina PPk Espainiako Auzitegi Gorenari errekurtsio hori ez onartzea eskatu zion, epez kanpo zegoela argudiatuta. Gorenak, azkenean, PPren eskaera onartu du eta EAEko udaletan euskararen erabileraren lehentasuna arautzen zituen hainbat artikulua baliogabetu ditu.

2023ko urriaren 19an, EAEko Justizia Auzitegiak PPren helegiteari men egin eta udal legea euskararen arloan garatzen duen 179/2019 dekretuaren 18.1, 18.2 eta 33.5 artikulua baliogabetu zituen. Artikulu horiek arautzen dute, besteak beste, udalen barne dokumentazioa euskaraz nahiz gazteleraz egitea, baina aktak euskara hutsean idazteko aukera dagoela. Erabaki hori hartu zuen epaileetako bat argudiatu zuen gaztelera eta euskara EAEko bi hizkuntza ofizialak izanik, ezin dela "lehenetsi" bietako bat.

Auzitegiek lehendik ere jarriak dituzte kolokan udal legeak hizkuntza kudeaketaren inguruan eman dituen irizpideak. 2023ko uztailaren 6an Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren ebazpen batek udal legearen 6.2 artikulua baliogabetu zuen. Artikulu horrek modua ematen die udalei euskaraz jarduteko, hau da, barne funtzionamendurako agiriak euskara hutsean egiteko. Urte hartako urriaren 17an izan zen EAEko udal legea euskararen arloan garatzen duen 179/2019 dekretuaren kontrako lehen epaiaren berri. EAEko Justizia Auzitegiak ebatzi zuen hainbat artikulua baliogabetzea. Vox alderdi ultraeskuindarrak aurkeztutako helegite baten erantzuna izan zen ebazpen hura. 9.2 artikulua, 11. artikulua lehengo atala eta 12. artikulua baliogabetu zituen; 18., 24., 27. eta 36. artikuluetako eduki batzuk ere bai.

<https://eh.lahaine.org/udalek-euskaraz-jardutea-baliogabetu-du>